

### LABURPENA

**K**ontzertu Ekonomikoaren inguruko gorabeherak sarritan ditugu komunikazio bideetan, eta gehienetan aurka agertzen diren irizpideen ikuspuntutik. Lan honekin zerbait arina aurkeztu nahi dugu, nondik norakoen ikuspegi zabal bat (eta, beraz, ez oso sakona), egungo egoera kokatzekoa besterik ez. Gaiarekiko hurbilketa bat litzateke beraz, herritargo arruntari, ikasleei zuzendutakoa, ez adituei.

Horretan, tributu foru sistemak egun Estatuko Autonomia Erkidegoen finantzaketa sistemaren duen lekua azaltzen da, bi sistema ezberdinen (eta ez kontrajarrien) arteko ezberdintasunak laburki agertuz. Izan ere, ezberdin izate horretatik datoz ikusezinak eta gaizki ulertzeak, eta ondorioz Tributu Foru sistema auzitegien aurrean aurkatzea. Helegiteen errepaso txikia egin eta aurka egite horien zergatiak laburtuko ditugu, azkenik 1/2010 LOak eskaintzen duen ustezko "blindajea" horren besterako ez dela argudioarekin bukatzeko<sup>1</sup>.

### I. TESTUINGURUA.

Finantza Zuzenbidearen atal bat da Autonomia finantzaketa. Jakina denez, espainiar Estatuko Autonomia Erkidego guztiak ez dute autonomia maila bera eskumen honetan, izan ere, Lurralde Historikoak dituzten Autonomia Erkidegoek, foru sistema jarraikiz, Estatuarekiko "paraleloa" den sistemaz antolatzen dira. Euskal Autonomia Erkidegoa horietako bat izanik, garrantzi handia du sistemaren ezagutza, barneratzea eta babesteko baliabideak herritargoaren artean zabaltzeak. Foru tributu sistemak, bestelako guztiak bezala, bere akatsak izango ditu (eta konpondu beharko ditugu, horretarako dauden bideetatik) baina, orokorrean, onartua da Estatuko beste Autonomia Erkidegoekin aldentuta, hobeagoa dela.

(\*) *Finantza eta Tributu Zuzenbideko irakaslea, Zuzenbide Fakultatea - Bizkaiko atala (Leioa).*

Hobeagoa izate horretatik (eta, "ondorioz", besteentzako kaltegarria) datoz Tributu Foru sistemari egiten zaizkion erasoak (komunikabideetan, doktrinan, epaitegietan). Oinarrian, nolabait, "zentralismo" era bat badago, Estatu osorako identitate berdina eta berbera bestelakoen gaintik inposatu nahi izatearen premia, eta ezberdintasunak onartu nahi ez izateak dakarren elkar-ulertezin garrantzitsua izanik, amaierarik gabeko korapiloan sartzen gaitu.

Kontzertu Ekonomiakoa (Ekonomia Ituna ere deitua) nahikotasunez hedatu gabeko ildo da. Gizartean ere oso ezezaguna da, nahiz eta euskal esparruko alderdi gehienek mantentzearen alde dauden. Juridikoki, espainiar goreneko legearen 1. Xedapen Gehigarritik eratoritzen da aipatzen ari garen gaia. Bertan Foru Lurraldeen Eskubide Historikoak aitortzen dira, zeinetan egun daukagun finantzaketa sistema oinarritzen den. Sistema esatean, kontutan hartu beharra dago "botere" batez ari garela, finantzaketa eratzeko eta osatzeko ahalmenaz. Mugak ditu, noski (edozein Estatuko ere ez al daukate ba?), baina muga horien barruan Estatuaren bestelako eskumena suposatzen du: tributu arauak sortu, arautu, kudeatu, jaso, aplikatu... ditzakete Lurralde Historikoek. Edozein lege bezala, perfektua ez denez, zenbait aldetatik kritikak ditu Ekonomia Itunaren sistemak: Euskal Autonomia Erkidegoko sindikaturen batek salatu du enpresak gutxiago ordaintzen dutela eta, beraz, herritar-langilegoak gehiago, Estatuko beste lurraldeekin aldentuta, presio fiskala berdintsua ala behintzat baxuagoa izan ez dadin<sup>2</sup>;

<sup>1</sup> Lan hau "Gizarte Ekonomia: tributu aspektuak" proiektuaren esparruan kokatzen da. *Eusko Jaurlaritzako Heziketa, Unibertsitate eta ikerketa Sailak emandakoa, erref.zkia IT304-10, eta EHU/UPVko 11/05 IFUan.*

<sup>2</sup> ELA-STV, *Informe sobre fiscalidad en Hego Euskal Herria 2003: aumenta la injusticia*, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbao, 2004. Baita ELA-STV, *La cara oculta del Concierto y Convenio Económico: regresividad, desigualdad, fraude: año fiscal 2000*, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbao, 2001. Eta ELA-STV, *Más presión fiscal para las rentas de trabajo y menos para las empresariales y de capital: el Concierto Económico parte del Estatuto muerto: informe año fiscal 2001*, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbao, 2002.

eta kanpotik egiten zaizkion kritikarik handienak mugakideak diren Autonomia Erkidegoetatik datozkio. Hauen ustetan, diskriminazioa sortzen du "espainiarren artean", solidaritate/elkartasun eza, "muga efektua", konparaziozko bidegabekeria, leialtasun falta... Eta sistemaren juridikotasuna zalantzan jarzen dute.

Azken finean, gakoa definizioan dago: identitate arazo bat da, eta berdintasuna «igualitarismoaz», (berdinkeriaz) nahastea, norberari dagokiona ala behar duena eman beharrean, guztiei berdina eta berbera ematen tematzea... Ezberdintasuna ez da onartzen, ezagutza-ezak beldurra dakar eta beldurraren eraginez datoz erasoak.

Europar Batasunaren barruan ere "apartekotasuna" salatua izan da, eta azkenean Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak (EJJA) argitu behar izan zuen zein baldintzatan onartzen den Estatu eta azpi-lurralde baten artean lege ezberdinak izatea. Eta euskal (foru) fiskalitatearen kasuan, baldintzak beterik, aldarrikatu zen espainiarrekiko ezberdina den araudi (fiskala) europarra dela (hau da, Europar Batasunaren barruan legezkoa dela).

Gai honen inguruan azken epaiak 2012ko apirilaren 3koak dira, espainiar Auzitegi Gorenekoak mugakideak diren Autonomia Erkidegoek jarritako helegiteak ebazten. Esan beharra dago, aurrerago ikusiko dugunez, epai hauek tributu foru sistemaren aldekoak direla, helegiteak jarritakoei kontra eginez<sup>3</sup>.

## II. TRIBUTU FORU SISTEMA ESTATUKO SISTEMAN

### II.1. Autonomia Erkidegoen Estatu: Tributu sistemaren eskema ezberdintasuna, aukerak.

Jakin badakigu, espainiar Estatu Autonomia Estatu bat dela; botere zentralaz gain, lurralde instituzio batzuk daude, 1978ko Konstituzioaren apuruan sortutako 17 Autonomia Erkidegoak

<sup>3</sup> Zentzu bereko zenbait sententzia dira, izatez, guztiak gako berdinari buruzkoak. Esan beharra dago ere boto partikularak jasotzen dituztela, aurkako zentzuan.

daukatena hain zuzen ere (eta Autonomia Hiriak deituriko bi, Ceuta eta Melilla, hurrenez hurren).


Tributu arloan, ordea, Konstituzioaren arabera eskumena Estatuari bakarrik dagokio, zeinek gero Autonomia Erkidegoei zenbait eskumen utzi edo laga diezazkioke tributu batzuetan (EK 133.art)<sup>4</sup>. Baina Konstituzioak berak jasotzen du ere Foru Lurraldeetako Eskubide Historikoak babesten direla (EK 1go XG<sup>5</sup>), eta Eskubide Historiko hauen artean garrantzitsuenetakoa izango da (aztertzen ari garen esparruan behintzat) tributu boterea. Izan ere, historikoki lurralde hauek beraien tributuak sortzeko eta kudeatzeko izan duten jatorrizko ahalmena mantendu du indarrean dagoen espainiar Konstituzioak. Inon izendatzen ez diren arren, doktrina eta jurisprudenzia bat datoz sailkapen honetan Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa bakarrik sartzen direla; ez gara esparru honetan sartuko, ia zergatik euskal lurraldeak bakarrik eta ez beste batzuk ere<sup>6</sup>.

<sup>4</sup> (Araudiaren testua euskarazko bertsioan jasotzen dugu, indarrean dagoena jatorrizko gaztelarazkoa bada ere). EKko 133. artikulua:tributu ahalmena. 1. Tributuak ezartzeko jatorrizko ahala Estatuari soilik dagokio, lege bitartez. 2. Autonomia-erkidegoek eta toki-korporazioek tributuak ezarri eta exijitu ahal izango dituzte, Konstituzioarekin eta legeekin ados. 3. Estatuaren tributuei eragiten dien onura fiskal oro lege bidez ezarri beharko da. 4. Administrazio publikoek legearekin ados baino ezin izango dute finantza-obligaziorik bereganatu eta gasturik egin.

<sup>5</sup> EKko I. Xedapen Gehigarria: Foru Lurraldeen Eskubide Historikoak:

Konstituzioak babestu eta errespetatu egiten ditu foru-lurraldeen eskubide historikoak. Foru-araubide horren eguneratze orokorra, hala badagokio, Konstituzioaren eta autonomia-estatutuen esparruan egingo da.

<sup>6</sup> Doktrina zabalera egiten dugu esleipena, hala nola HERRERO Y RODRÍGUEZ DE MINÓN, Miguel. *Derechos Históricos y Constitución*, Taurus, 1998, Madrid; egile berdinarekin "Los Derechos Forales como Derechos Históricos". In: REDC, *Revista Española de Derecho Constitucional*, 1998, 18. urtea, 52.Zkia, Urtarrila-apirila; 53-80; FERNÁNDEZ RODRÍGUEZ, Tomás Ramón. "Los Derechos Históricos de los territorios forales. Bases constitucionales y estatutarias de la Administración Foral Vasca". In: *Centro de Estudios Constitucionales*, 1985, Civitas, Madrid; eta baita ere "Concepto de Foralidad en la Constitución de 1987". In: *Los Derechos Históricos Vascos-en*, IVAP, 1988, Oñati; CORCUERA ATIENZA, Javier. "Consecuencias y límites de la constitucionalización de los Derechos Históricos de los Territorios Forales". In: REDC, *Revista Española de Derecho Constitucional* 23.urtea, 2003, 69.Zkia, iraila-abendua.



Berez, Euskal Autonomia Erkidegoan Lurralde Historiko bakoitzeko instituzioei dagokie eskumen hau, horrela EAE (erkidego bezala) tributu arloan eskumen gutxienez dituen Autonomia Erkidegoa izanik.

Espainiar Konstituzioan jasotzen da ere Autonomia Erkidegoen finantzaketa. Berez, konstituzio-testuak ez du inon esaten zeintzuk izango ziren Autonomia Erkidegoan eratuko ziren lurraldeak (xedapen printzipioa); hasieran behintzat Estatu eredu zehaztugabea zegoen. Hala ere, zenbait lurralderen Autonomia nahiak ageriak izanik, hauen finantzaketaz zer esanik izan zuten konstituziogileek. Horrela, EKko 156.1 art. an finantzaketa Autonomia jasotzen da, Autonomia Erkidego bakoitzaren interesak kudeatzeko bidea bezala [EK 137 art. eta 63/1986 KAS (4.OJ) eta 183/1988 KAS (1 OJ)]. Ez gara Autonomia finantzaketa orokor

honetan sartuko, azpimarratu besterik ez Autonomia Erkidegoen garapenerako duen garrantzia eta, batez ere, Estatuaren eraketan (García Ruíz eta Girón Reguera, 1997:141-158).

#### A. Erregimen orokorra:

Espainiar Autonomien tributu sistema espainiar Konstituzioaren 156, 157 eta 158 artikuluetan moldatzen da, eta LOFCA delakoan (Autonomia Erkidegoak Finantzatzeko Lege Organikoa). Erregimen orokorra deritzo, eta Estatu osoan aplikatzen da, baita Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten Lurralde Historikoetan (hauen eskumenekin bat datorrenean edo horien eskumenean hutsuneak betetzeko, subsidiarioki).

Sistema orokor honen arabera, tributu arloan eskumena Estatuari dagokio, Autonomia Erkidegoei ere zenbait ahalmen onartzen bazaizkie ere (bereko tributuak, zeintzuk zergak, tasak eta kontribuzio bereziak izan daitezke). Gakoa da ia tributu guztiak "asmatuta" daudela, eta horiek Estatuarenak direla (dena den, "ekotasia" delakoa ere asmatu zuten ekialdeko itsasertzean...). Berez, berez, erregimen arrunteko Autonomia Erkidegoak batez ere Estatuak esleitutako tributuez hornitzen dira, bai osotasunean utzitakoak zien zati batean. Eta, gainera, Erkidego bakoitzean Estatuaren tributuen gainean errekarguak jarri ditzakete (politikoki oso desatsegina izaten den neurria eta, beraz, gutxi erabilia). Laburbilduz, Estatuaren erabakiz Autonomia Erkidego bakoitzean bertan


<sup>7</sup> EK. 156. Art.:

1. Autonomia-erkidegoek finantza-autonomia izango dute beren eskumenak garatzeko eta gauzatzeko, bi printzipio hauei jarraituz: Estatuaren Ogasunarekiko koordinazioa, batetik, eta espainiar guztien arteko elkar-tasuna, bestetik.

2. Autonomia-erkidegoek Estatuaren eskuordeko edo laguntzaile gisa jokatu ahal izango dute, haren tributubaliabideak bildu, kudeatu eta likidatzeko, legeekin eta estatutuekin ados.

EK.137. art.:

Lurralde-antolamenduari dagokiola, udalerriz, probintziaz eta era daitezkeen autonomia-erkidegoez osaturik dago Estatu. Entitate horiek guztiek autonomia dute zeinek bere interesak kudeatzeko.



jasotzen den tributuekin gera daitezke, osorik ala zati batean, beraien eskumenak eta gastuak finantzatzeko. Adib. PFEZaren %33az (gainontzeko %67a Estatuarentzat da), BEZaren %35 (%65a Estatuarentzat), eta osorik bildu ditzaketen zergak dira, besteak beste, Ondarearen gainekoa, Oinordetza eta Dohaintzaren gainekoa, etab. Aurrago aipatuko dugun Sozietateen gaineko Zerga Estatuari dagokio osotasunen, Foru Lurraldeetan ez bezala.

## B. Foru erregimenak.

### a) Nafarroako Foru Erkidegoa: Nafarroako Hitzarmen Ekonomiakoak:

Estatua eta Nafarroako Foru Erkidegoaren (NFE) arteko tributuek erlazioak abenduaren 26ko 28/1990 Legearen bitartez arautuak datoz, Nafarroako Hitzarmen Ekonomiakoan. Bertan, eskumen bana-keta bat egiten da tributuek arloan, Estatua eta Foru Erkidegoaren artean. Horrela, Estatuaren zenbait eskumen eskusibo jasotzen dira (muga zergak, inportazioaren gaineko zergak, BEZa), Estatuaren eskumen legegileak (Espainian egoiliarak ez diren pertsona fisikoak eta entitateak zergatzen dituzten tributuek, obligazio erreala) eta Foru Erkidegoaren eskumenak (zergak: Persona Fisikoen errentaren gainekoa, Ondarearen gaineko, Sozietateen gainekoa, Ondare eta Dohatzeen gaine-


koa, Ondasunen Transmisioen eta Dokumentatutako Ekintza Juridikoen gainekoa, Zerga bereziak, Tasak eta Udal Zergak).

EAEan indarrean dagoen Kontzertu Ekonomikoaren antzekoa izanik, ez gara gehiago barneratuko arau honetan. Aipagarriena, eta kontutan hartzekoa, espainiar Konstituzioak aipatutako Lurralde Historikoaren esparrua nafar erresumen mugak egungo Autonomia Erkidegoarekin bat datorrela. Horrek esan nahi du Lurralde Historiko bezala dago kiola tributuek arloko boterea, ez Autonomia Erkidego bezala, nahiz eta instituzioei begira nafar parlamentua izan legeak egiten dituen. Eta legeak dira, Autonomia legeak (foru legeak deitzen diete), Nafarroan tributuek arloa arautzen dutenak.

### b) Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoak: Kontzertu Ekonomiakoak:

Euskal Autonomia Erkidegoan, beraz osatzen duten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoek daukate tributuek botera, eta Estatuarekiko "itun" bat dela medio antolatzen da tributuek arloko harremana: Kontzertu Ekonomiakoak / Ekonomia Ituna delakoren bidez.

Historikoki egun Kontzertu Ekonomiako bezala ezagutzen duguna XIX. mendearen amaieran eratzen da, II. Karlistaldia bukatzean foruak ezez-



tatu zirenean. Euskal lurraldeak Espainiako finantzian parte hartzeko sistema moduan gauzatu zen, eta Foru Aldundiei beraien zergak biltzeko eskubidea onartzen zitzaie, haien gastuei eta Estatu espainiarrarekin batera zituztenei aurre egiteko. Lehen Ekonomia Ituna 1878an onartu zen eta behin eta berriro berrizatu da gaur egun arte, frankismo-garaian Bizkaia eta Gipuzkoan izan ezik. Konstituzio berriaz, 1981ean berriro berreskuratu zen, bateratua hiru Lurraldeentzat. Azken berrirea 2002koa da, egun indarrean dagoen araua<sup>8</sup>.

Ez gara sistemaren iraupenaren zergatian sartuko; egun Espainiako Estatu osatzen duten lurralde guztiek Historiako garai batean zein bestean nor-tasun eta aginpide propioa izan dute, azkenean Estatu unitario baten parte izan arte<sup>9</sup>. Gurean, historikoki izandako zenbait eskumen eta eskubide mantendu dira, antzinako Foruek (oso aldatuta bada ere) iraunbizi dutelarik. Jakina denez, Fo-

ruak subjektu politikoa eraentzen duen antolamendu juridikoa adierazteko modu herrikoia eta orokorra da. Gure Euskal Lurralde Historikoen kasuan, hasieran denboran zehar sendotu ziren ohitura eta usadioen multzotik sortu zen Forua, azkenean Forua lege orokor bat bilakatu arte, bere barruan hainbat arau mota jaso zituena (hots, aldi berean zen konstituzio-legea, kode zibila, zigor kodea edo prozedura-kodea). Hau da heldu zaiguna, eta bertan geratzen zaigun eskumenik garrantzitsuen zergatzea da.

Esan bezala, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako instituzioak dira tributu boterea daukatenak, beraz Lurralde Historiko bakoitzeko Batzar Nagusiek sortzen eta arautzen dituzte tributuak, eta Aldundiak dira kudeatzeaz eta bilketaz arduratzen direnak. Estatuaren eskumena izango dira Lurralde Historikoetatik kanpoko erlazioak (kanpoko elementuren bat agertzean) Europar Batasuneko erlazioetatik eratoritakoak (BEZA, kasu), etab. Estatuarekiko tributu arloko "Autonomia oso" hori da Euskal Autonomia Erkidegoa (eta Nafar Foru Erkidegoa) beste Autonomia Erkidegoetatik bereizten dituen. Zenbaitzuk "soberania" ere deitzen diote, baina koherentzia mantenduz, Autonomia politiko sistema batean ez dauka lekurik tributu arloko subiranotasunik. Horrek ez du esan nahi sistema txarra denik (ezta ona ere), bakkarik sistema propio bat dela, berezkoa, non Estatuarekiko obligazio batzuk betez, tributuak

<sup>8</sup> 12/2002 Legea, maiatzak 23koa, Euskadirekin Kontzertu Ekonomikoarena.

<sup>9</sup> ALONSO OLEA, E.J. *El Concierto Económico (1878-1937). Origen y formación de un Derecho Histórico*, IVAP, Oñati, 1995. Eta, egile berdinaren "Las haciendas forales vascas. 1500-2002. Una historia del concierto económico", in AAVV., "El Concierto Económico Vasco historia y renovación. Las valoraciones de la población de la C.A.P.V. al respecto", Cuadernos Sociológicos Vascos, 12 zkia, 2002. urtea, 7- 49 orr.

arautzean askatasuna dagoela. Eta egungo gizaratean Estatuen ahalmena ere mugatua dela badakigu, nazioarteko konpromisoak direla medio, erakundeei esleitutako eskumenak daudelako...

Tributu Autonomia honen "ordainsaria" litzateke sistemaren oinarriko printzipioa den (eta horretan dago gako) alde bakarreko arriskua deiturikoa, zein Kontzertu Ekonomiakoaren araubidearen ezaugarrietako bat da. Horren arabera, Euskadik bere gain hartzen ditu Kontzertu Ekonomiakoak aitortzen dizkion eskumenak egikaritzean sor daitezkeen ondorioak, bai positiboak (ekonomia garai onetan, diru sarrera ugari izatea) bai negatiboak (krisi ekonomian nahiz eta diru-sarrerak murriztu kupoa ordaindu behar izatea eta bestelako eskumeneren gastuak mantentzea).

Kontzertu Ekonomiakoa Estatua eta Euskadiko Autonomia Erkidegoaren arteko tributu erlazioak arautzen dituen finantzaketa-sistema da. Honen arabera, tributu arloko mugak eta betebeharrak jartzeaz gain (presio fiskala Estatukoaren parekoa izango dela, behintzat txikiagoa ez; Lurralde arteko Konpentsazio Funtsean parte hartzea; konexio puntuak; etab.), Euskal Autonomia Erkidegoak berenganatu ez dituen eskumeneren gastua "ordaintzeko" dagokiona ezartzen da, "kupoa" delakoa (besteak beste, Defentsa gastuak, Nazioarteko Harremanetako gastuak, Koroa, AHT,...). Euskal Autonomia Erkidegoak, berari dagokion heinean (Estatuko errenta osoaren %6,24, esan bezala), eskumen hauek finantzatzen ditu, Euskadiren finantza-egoera eta diru-sarreraren kopuruari erreparatu gabe.

Laburbilduz, sistema hau tributu arloan eskumen banaketan oinarritzen da. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Historikoen erakunde eskudunei euren tributu-sistema eratzeko eta ezartzeko eskumena aitortzen die bai EK I.XG bai Kontzertu Ekonomiakoak, salbuespen bakarria izanik Estatuari modu eksklusiboan dagozkion eskubideak. Eta Estatuaren eskumen eksklusiboak dira:

- Inportazioen gaineko eskubideak eta inportazioei lotutako Zerga Bereziak eta BEZA

- Kontzertu Ekonomiakoan ezarritako goi mailako ikuskapena.

- Aipatutako eskumenak erabiltzean EAeko Lurralde Historikoen printzipio nagusi batzuk errespetatu behar izatea (harmonizaziorako eta elkar-lanerako erregela jakin batzuk).

- Aplikazio-eskumenak erabiltzeko, Kontzertu Ekonomiakoak EAeko Lurralde Historikoei aitortu dizkie Estatuko Herri Ogasunak dituen jarduteko ahalmen berdinak<sup>10</sup>.

## II.2. Euskal Autonomia Erkidegoaren finantzaketa. Barne antolakuntza.

Tributuak Lurralde Historikoen Aldundiek biltzen dituzte (Foru Ogasunek). Bildutakoaz lehenik eta behin Kupoa deritzona ordaindu behar zaio Estatuari, transferitu gabeko eskumeneren balioa konpentsatzeko. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko aberastasunak (errentak) Estatuaren aberastasunaren/errentaren gainean duen proportzioa kontutan izanda kalkulatzeko da kupoaren ordainketa. Proportzio horri egozpen-indizea deritzo, eta %6,24an kalkulatu dago (zifra berak kritika asko jasotzen ditu, eguneratu ez delako). Kopuru hau, espainiar Konstituzioak administrazio zentralari erreserbatzen dizkion eskumenak mantentzeko da (besteak beste, koroa, kanpo harremanak, defentsa eta ejertzitza, AHTa, Gorte Nagusiak, Justizia (epaitze funtzioa), interes orokorreko portuak eta aireportuak, Estatuaren Zorra, Lurraldeen arteko Konpentsazio Funtza...). Hortaz gain, badaude Autonomia Erkidegoaren eskumena izanik oraindik transferitu gabe daudenak ere, eta horiek oraingoz Estatuak betetzen dituen zerbitzuak izanik, ordaindu behar zaizkio kupo bidez<sup>11</sup>.

Laburbilduz, Euskal Autonomia Erkidegoko diru-sarrerak itundutako zergetan oinarritzen dela esan

<sup>10</sup> Kontzertu Ekonomiakoari buruzko informazio gehiagorako, ikus <http://www.adconcordiam.org>

<sup>11</sup> Beraz, transferitu bitartean Estatuari ordaindu behar zaizkion zerbitzuak izanik, are eta gehiago jasotzeko transferentziak berandutzea komeni zaio Estatuari; zenbat eta transferentzia gehiago burutu, kupoa txikitzen doalako...



genezake. Zerga hauek (besteak beste, Pertsona Fisikoen gainekoa, Oinordetza gainekoa, Sozietateen gainekoa...) Lurralde Historikoen tributua ahalmena da, arautzeko, kudeatzeko, biltzeko. Arauketan autonomia izanik, ez dauka zertan Estatuako legediaren berdina izan behar (izatez, karga-tasa ezberdinak daude, eta Sozietateen gaineko Zergan horrek ekarri ditu liskarrik bortitzanak, ikusiko dugunez). Gastuen aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen kostuz gain, Estatuak EAEn egindakoak ordaindu behar dira, kupo bidez. Konpentsazio bidez itzultzen zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoari Estatuak bildutako itundu gabeko sarreretan dagokiona (aduanak, defizita, inbertsioak besterentzea, etab), kupotik kenduta.


Tributu eskumena Lurralde Historikoena izanik, hauen ekarpenekin hornitzen da Autonomia ogasuna, eskumen Autonomiakoak kudeatzeko. Beraz, diru iturri aldetik beste Autonomia Erkidegoekiko bereizketa nabaria da, gainontzekoak Estatuaren ekarpenekin funtzionatzen dute eta.

Gurean, Foru Aldundiak biltzen dituzte tributuak, eta gero "ekarpena" egiten diote Autonomia Ogasunari (gutxi gora behera jasotakoaren %70). Diru-banaketa bakoitzak dituen eskumenen arabera izango da, beraz gainontzeko kopuruak Aldundien (%15) eta Udalen (%15) artean banatuko dira, bakoitzak dituen betebeharrak asetzeko.

Beraz, EAeko finantzaketa sisteman Autonomia Erkidegoak Lurralde Historikoetatik hornitzen da, erregimen orokorrekoek Estatutik egiten duten antzera. Horrek euskal erkidegoa instituzio aldetik "ezberdina" izatea suposatzen du (gaztelarazko "hecho diferencial" delakoa areagotuz). Eta ezberdintzean dator gatazka.


### II.3. Gatazken oinarria: Lurralde Historikoen tributua ahalmena eta arau maila.

Gatazken nondik norakoak hainbat jatorri ditu. Oinarri-oinarrian ezberdintasunaren onartzea legoke, Espainiar Estatu Autonomiako definizioan bertan. Teoria hau bertan behera uzten duena



## 6. Taula

## EAEko diru-sarrereren kudeaketa



helegiteak euskal Lurralde Historikoen foru arauen aurka bakarrik jartzen direla da, eta ez Nafarroako foru legeen aurka, nahiz eta eskumen berean oinarriturik egon eta era berdintsuan egikaritu.

Espainiar Konstituzioak berak ez du inon jasotzen Estatuaren lurralde osoa Autonomia Erkidegoz beteko zenik, ezta hauen eskumenak berdinak (eta berberak) izan beharko zirenik ere. Baina 1981tik geroztik<sup>12</sup> berdintzeari ekin zioten, instituzioen bikoizketaz (eta egun bizi dugun krisian bikoizte horrek suposatzen duen mantendu gastuekin, batez ere Estatu mailan eta erregimen orokorreko Autonomia Erkidegoetan; gurean ez horrenbeste, edo behintzat ez Estatuaren kargura, izan ere Lurralde Foralak bai dira euskal instituzioen gastu guztiak ordaintzen dituztenak).

Juridikoki gatazka areagotzea erraztu duena Lurralde Historikoen instituzio legegileen arau mailarena izan da. Lehen esan bezala, Batzar Nagusiak dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan tributu foru arauak egiteko eskumena dutenak. Gakoa da Estatutu bidez eta Lurralde Historikoen Legea dela

<sup>12</sup> Ez gara horretan sartuko; 1981eko otsailaren 23ko Estatu Kolpe saiakeraz geroztik, Autonomien eskumen berdintze baterako joera zabaldu zen, nazionalismoak ahultzeko asmoaz. Autonomia Erkidego izaera zabaldu zen estatua osatzen duten lurralde guztietara, eta denetan Gobernuaz gain Legebiltzar bat ezarri zen, eskumen Autonomiakoak kudeatzeko eta garatzeko.

medio, "lege" mailako arauak Euskal Autonomia Erkidegoko legebiltzarrak bakarrik egin ditzakeela<sup>13</sup>. Beraz, espainiar araudiaren hurrenkeran Batzar Nagusien produktuei "erregelamendu" maila da geratzen zaiena. Nafarroan ez da halakorik gertatzen, izan ere Lurralde Historiko esparrua Autonomia Erkidegoarekin bat etortzean nafar parlamentuak arautzen dituelako, lege mailako arauak izanik.

<sup>13</sup> Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskadiko Autonomia Estatutuarena, 25. Artikulua: 1.- Eusko Legebiltzarrak legegintza-agintea du, aurrekontuak onartu eta Eusko Jaurlaritzaren ekintza bultzatu eta kontrolatzen du, beti ere Estatutu honen 37. artikuluan aipatutako erakundeen eskumenei kalterik eragin gabe.

27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoa (182 zenbakidun EHAA, 1983.eko abenduaren 10ekoa). Zioen adierazpenean ere horrela jasotzen du: (...) Legebiltzarraren nagusitasuna nabarmentzen da, Autonomia-Elkartean Lege-mailako manua onartzeko gaitasunaren jabe den Erakundeagoren bakarra denaren aitortpena egiten zaionean, nagusitasun hori nahitaezko lege-mailaren eta manuen maila finkatzearen arauetarako oinarri-irizpideak jartzerakoan garbi adierazita gelditzen dela (...). 6. art. ere ildo beretik ideia hori azpimarratzen du: 1. Autonomia-Estatutuaren arabera, Autonomia-Elkarteari dagozkionak izanik, Estatutu horretan, Lege honetan edo gerokoren baten Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Sailei aitortu edo izendatu ez dakizkien gai guztiekiko legegintza eta exekuzioa Autonomia Elkarte Osorako Erakundeei dagokien aginpide da. 2. Beti ere, Lege-mailako arauak emateko ahalmena Legebiltzarrari bakar-bakarrik dagokio.



## 7. Taula

Tributu materiaren forma**NF**

Tributu boterea Nafarroako foru legebiltzarrak

- Tributu foru **LEGEAK**

**EAE**

- Tributu boterea LLHHTako Batzar Nagusiak (ABG)
- Tributu foru **ARAUAK**
- EAE: legeak Eusko Legebiltzarrak bakarrik
- Batzar Nagusietako arauak, estatuko hierarkia araugilean = **erregelamendu maila** (zerga materia lege erreserba duen arren)

Dena den, aipatzekoa da ere espainiar Konstituzioaren arabera tributu materia lege formaz arautu behar dela (EK 133.1. art.); baina Euskal Lurralde Historikoetan agindu hori ez da betetzen. Doktrinak, honetan ere, ez datoz bat, baina ez gara horretan sartuko<sup>14</sup>.

Bereizketa garrantzitsua da; izan ere, legeak aurkatzeko (helegiteak jartzeko) legitimazioa nahiko murriztua da: Estatuko presidentea, Herri Defendatzailea, 50 kongresu-kide, 50 senatari, Autonomia Erkidegoetako gobernua eta parlamentuak<sup>15</sup>. Aldiz, lege maila azpitik dauden arauen aurkako helegiteak jartzeko "interes legitimoaz" nahikoa da, kontzeptu zehaztugabea izanik edonork argudiatu dezakeelarik helegiteak jartzeko (AAJlren 19.1.a) art.)<sup>16</sup>. Honetan oinarriturik, Tributu Foru Arauen aurkako helegiteak ugariak izan dira, mugakideak diren Autonomia

<sup>14</sup> ALONSO ARCE, I. "Naturaleza de las Normas Forales de los Territorios Históricos del País Vasco y su posición en el ordenamiento jurídico", *Forum Fiscal de Bizkaia*, 1998ko iraileko zkia, 3-10. Baita ere, DE LA HUCHA CELADOR, F. "La naturaleza legislativa de las normas forales de los territorios históricos del País Vasco", *Civitas. Revista Española de Derecho Financiero*, 2006ko 129 zkia, 21-40.

<sup>15</sup> EK 161.1.a).art.: K Aren eskumena lege mailako arauen aurkako helegiteetan. EK 161.1.Art. Konstituzio Auzitegiak Espainiako lurralde osoan du jurisdikzioa, eta eskumena du honako hauetaz arduratzeko: a) Legeen eta lege-indarreko arau-xedapenen aurkako konstituziokontrakotasun-errekurtsioak.

162. art: 1. Legitimatutik daude:a) Konstituziokontrakotasun-errekurtsioa jartzeko: Gobernuo presidentea, Herriaren Defendatzailea, 50 diputatu, 50 senatari, Autonomia-erkidegoetako kide anitzeko organo exekutiboak, eta, hala badagokio, haietako legebiltzarrak.

<sup>16</sup> AAJL (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legea, 19.art. 1. Legitimatutik daude administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean: a) Eskubidea edo interese legitimoa duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

Erkidegoetako (Errioxa, Kantabria, batipat) bai instituzioak (Gobernuak, parlamentuak) bai bertako langileen sindikatuak (UGT-Errioxa) eta enpresariaren elkarteak aurkeztuak. Laster jorratuko dugu gai hau.

Dakigunez, Foru Arauak izaera orokorreko arauzko xedapenak dira, Lurralde Historiko bakoitzeko Batzar Nagusiek emandako arauen artean lerrunik handiena dutenak. Eta lehen aipatu bezala, Euskal Autonomia Erkidegoan lege maila formala arautzeko eskumena Eusko Legebiltzarrari bakarrik dagokio, nahiz eta espainiar Konstituzioak tributu arloa lege formalez arautzea agintzen duen.

Laburbilduz, Erregimen orokorreko Autonomia Erkidegoak tributu arloan Estatuarekiko menpekotasuna dutenez, Estatuak mugak jar ditzake Autonomia hauen Zor Publikoan, Autonomiaren zor mailan, zor horien erantzukizun subsidiarioa Estatuak berak duelako. Erregimen orokorreko Autonomia Erkidegoek beraien zorak ordaintzerik ez badute, Estatuak ordainduko ditu. Foru erregimeneko finantzaketan, aldiz, aldebakarreko arriskua-ren printzipioa dela eta Estatuak ez du inolako erantzukizunik Foru Lurraldeen zor mailan. Eta, gainera, Kupoa derrigorrez ordaindu beharrekoa da, tributu-bilketaren emaitzarekiko loturarik gabe. Beraz, "Autonomia" hori dela eta, Estatuak ezin du Foru Lurraldeetan beste Autonomia Erkidegoetan jarritako mugak / baldintzak ezarri.

Konstituzioak agindutako Lurraldeen arteko solidaritatea ere errespetatzen da foru erregimeneko sisteman, izan ere Euskal Autonomia Erkidegoak dagokiona sartzen duelako Lurralde-arteako Kontentsazio Funtsan (nahiz eta bertatik ezer jasotzen

ez duen). Azkenik, zerga-presio baliokideari dagokionez (Foru Lurraldeetan orokorrean zerga-presioa ezin duela Estatuarena baino txikiagoa izan: Sozietateen gaineko Zergagatik gutxiago bildu ezker, beste zergaren baten gehiago ingresatu beharko, PFEZ); betetzen da, izan ere Euskal Autonomia Erkidegoan zerga-presio orokorra Estatuaren baino altuagoa da eta. Euskal Autonomia Erkidegoan (eta, agian Nafar Foru Erkidegoan) Lurralde Historikoak tributuoak sortu/arautu, kudeatu, bildu eta aplikatu ahal izatea da ezberdintasun garrantzitsuena erregimen arrunteko Autonomia Erkidegoekiko, eta beraien tributuekiko ezberdinak izan ahal izatea da arazoa. Nafarroako tributuen arautze maila legezkoa izanik, ez dute horrenbeste arazo izan (argumentu politikoak at). Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, ordea, arauen maila erregelamenduzkoa izanik, mugakidean diren Autonomia Erkidegoak Tributuo Foru Arauak errekurritzen dituzte, "interes legitimoa" duen edonork aurkatu ditzakeelako helegiteak jurisdikzio arruntaren aurrean (administrazioarekiko auzien jurisdikzioa). Legitimazio zabal horretaz baliaturik helegite jartzaileak izan ziren Errioxako parlamentua eta gobernua, Kantabriako parlamentua eta gobernua, UGT-Errioxa eta Errioxako Enpresarien Elkarte. Argumentuaz, bitxikeri bat: espainiar legediaz bat zetozen Tributuo Foru arauak Europar Batasuneko legalitatearekin talka egiten zutela dioten. Eta "Estatu-laguntzen" espa-

rruan kokatzen zituzten, lurraldetasun selektibitatea ematen zelakoan<sup>17</sup>. Hau da, Estatuaren osotasunaren barnean lurralde batzuk aparteko arau onuragarriagoak zituztela, beste lurraldeak "kaltetuz" (delako kaltea frogatu gabe dagoen arren).


### III. SORTUTAKO GATAZKEN NONDIK NORAKOAK

Aspalditik datoren kontua da. Laburbilduz, 1993-1995 bitartean Foru Aldundiak zerga murrizketa sistema bat onartu zuten Sozietateen Zergetan ("opor fiskala" deiturikoak), enpresak berengantzeko asmoz. Gainera, 1995-1999 bitartean 15 milioi € gainditzen zuten inbertsioetarako %45eko txikiaren eman zituzten. 1999ko ekainean Europar Batzordeak lehen espedienteak zabaldu zituen, onura jasotako enpresen zerrendak erreklamatu. Ez Foru Aldundiak eta ez Eusko Jaur-laritzak ez zituzten zerrendarik eman (1999ko abendua). 2000ko urtarilean Foru Aldundiak laguntza horiek derogatu zituzten.

2001eko uztailen Batzordeak 1995ko "opor fiskala" eta inbertsioetarako txikiaren lege kanpokoak aldarrikatu zituen, beraien itzultzea exijituz. 2003ko azaroan Batzordeak helegitea jarri zuen Europar Batasuneko Justizia Auzitegian

<sup>17</sup> EBT 107.art. araututako portaerak saihesten dira.

## 8. Taula



(EJJA), Espainiak laguntzak berreskuratu ez zituelako salaketaz<sup>18</sup>. 2006ko abenduan EJJAak Espainia kondenatu zuen, laguntzak berreskuratzeko Aldundien ezetzagatik. 2008ko otsailak 28an tributu arloan euskal eskumenaren epaiketa hasi zen, 2008ko irailak 11an sententzian bukatuz.

### III.1. Mugakideak diren Autonomia Erkidegoen jarrera.

Batez ere aipatzekoak dira europar legedia urratzean oinarritutako helegiteak. Dena den, aurrera egin aurretik, bereizketa garrantzitsu bat egin beharra dago, komunikabideetan (eta doktrinako zenbait alorretan) dena nahasturik agertzen da eta (eta ez beti jakin ezagatik, noizbehinka nahitakoak dira eta). Alde batetik tributu arloan arautze eskumena/boterea dago, tributu Foru Arau orokorrek (2008ko irailaren 11ko EJJA<sup>n</sup> onartzen zena), eta beste alde batetik ahalmen horren adierazpen diren neurri zehatzak. Botere orokorra salbu gerturik, beste subjektu asko bezala (Europar Batasuneko edozein Estatu, espainiarra barne) Foru Aldundiek ere europar legetasunarekin bat ez datozen neurriak hartu ditzakete noizbehinka, dagozkie zuzenketak egitera beharturik daudela ("opor fiskalak", kasu). Behin berezituta gakoan dauden tributu arloko bi adierazpenen zentzua (arau orokorrek eta beraien aplikazioaren artekoa) arazoaren mamian sar gaitzen.

Mugakideak diren Autonomia Erkidegoen argudioak barne eta kanpo argudioetan sailkatu genitzake. "Barne argudioak" dira solidaritate eza, diskriminazioa, irain konparatiboa dela<sup>19</sup>, konpetentzia desleiala, pribilejioa, "muga efektua", umilazioa, trikimailua, engainua, traizioa, gehiegikeria...<sup>20</sup>. "Kanpo argudio" bezala esaten

<sup>18</sup> Kontutan izan behar da Europar Batasunean ordezkapen bakarra Estatuak daukatela; estatu-azpiko antolakuntzen aurkako helegiteak Estatuari igortzen zaizkio, honek Autonomia Erkidegoari eta bueltan berriz bide beretik, Estatuak beti ere tartekari delarik.

<sup>19</sup> Zentzu honetan, eta Kantabriari dagokionez, ikus CARRERA PONCELA, A., "Efecto diferencial del Impuesto foral sobre Sociedades: algunos cálculos desde Cantabria", *Revista Asturiana de Economía (RAE)*, nº 31, 2004, 95-118 orr.

<sup>20</sup> Horrela jasotzen du, adibidez, PASCUAL MEDRANO, M.A., "La Comunidad Autónoma de la Rioja y el lla-

dute Europar batasuneko legediaren aurkakoak direla tributu foru arauak, estatu laguntzak direlakoan.

Soluzioa, noski, Estatu osoan arau berdinak aplikatzea da. Beraz, modu batean zein bestean helburu hori lortzeko asmoz, lehen pauso baten, "lurraldetasun selektibitatean" oinarriturik euskal Foru Lurraldeetako tributu eskumena zen zalantzaz jartzen zena, Estatuarekiko arau ezberdinak egin ahal izatea. Argudio horrekin, mugakideak diren Autonomia Erkidegoetako instituzioak eta enpresari eta langileen elkarteak helegiteak jarri zituzten. Euskadiko Justizia Auzitegi Nagusiak (EJAN) ez zien arrazoia eman, eta helegite bidez espainiar Auzitegi Gorenera (AG) heldu zen gakoa, eta honek, ez zegokion eskumen bat bereganatuz europar zuzenbidea interpretatu eta tributu foru arauak Europar Batasuneko legalitatearen kontrakoak zirela aldarrikatu zuen (2004ko abenduak 9ko epaian), Sozietateen gaineko Zerga deuseztatuz. Hutsune legala betetzeko, Aldundiek arau berriak aldarrikatu zituzten, aurrekoen berdinak. Noski, helegite jartzaileak (mugakideak diren Autonomia Erkidegoko instituzioak, eta bertako enpresari eta langileen elkarteak) helegite berriak jarri zituzten.

Oraingoan, berriz ziklo berean ez erortzearren, EJANak Europar Batasuneko Justizia Auzitegira Lurraldetasun selektibitateari buruzko epaiketa aurreko arazoa igorri zion (Europar zuzenbidearen interpretatzaile bakarra bera bai da). Honek, 2008ko irailak 11ko epai ospetsuan, Estatu-azpiko antolakuntzek Estatuarekiko ezberdinak diren arauak egin ahal izateko bete beharreko baldintzak jarri zituen. Horrela, "Autonomia test hiru-koitza" deiturikoaren arabera, estatu-azpiko antolakuntzak instituzio, prozedimendu eta ekonomia Autonomia badauka (Estatuak parte hartzen ez badu arauen eraketan eta horien ondorio Ekonomikoak konpentsatzen ez baditu), orduan bere arauak Europar Batasuneko legediaz bat datoz eta ez dira "Estatu-laguntzak" lurraldetasun selektioari begira, arauak orokorrek direlako es-

mado "blindaje" del concierto económico vasco", *Revista general de derecho constitucional*, nº 9, 2010, 13.orr.

tatu-azpiko eremuan<sup>21</sup>. Kontzertu Ekonomikoa autonomia da Estatuko sistemarekiko eta ez da "lurraldetasun selektibitate" ematen. Beraz, gustuko izan ala ez, bide hau agortutzat eman daiteke.

Beraz, inguruko Autonomia Erkidegoak tributu foru sistemaren aurka izanik ere (eta ahalik eta helegite gehien jartzen dituzte, horren adierazle bezala), "etekina" atera diotela esan beharra dago. Estatuko erregimen orokorra lurralde guzti-guztietan aplikatze ezak beraiengan kalteak sortzen dituztela argudiatzen dute. Jakina denez, Sozietateen gaineko Zerga tasa (orokorra) foru lurraldeetan %28koa da, eta erregimen orokorreko zergan %30ekoa (nahiz eta enpresaren dimentsioa/fakturazioaren arabera, lehen tarte batean %25ekoa izan daitekeelarik). Horrek suposatzen du Estatuan 2 zerga tasa daudela zerga honekiko, eta 2 puntuko diferentzia hori guztiz erabakigarria dela enpresa bat kokatzerakoan foru lurraldea hautatzea Errioxa beharrean. Noski, argudio honetatik ateratako etekinak ikusita (Estatuak ustezko "kalte" hori konpentsatzen duela, miloi askotan), ez da inolako ikerketa zentzudunik egin enpresa munduan egoitza non jartzea erabakitzean kontutan hartzen diren parametroez. Enpresen exodoaz ez dago datu zehatzik, gehiezin itxi egiten diren enpresenak eta zabalitzen diren berrienak, baina berdinak direla frogatu ezin delarik. Gakoa modu argiz azaldu dezaketen datu zehatz eta sinesgarrien faltan, azken emaitza seriozki hartzeko (eta izena jartzeko) zenbait aldagai ikertu eta hartu beharko dira kontutan. Hala nola, des-kokatzen diren enpresen pisua hartu beharko da kontutan, kapital soziala, langile kopurua, esportazio-inportazio ahalmena... Eta,

<sup>21</sup> Ikus RUBÍ CASSINELLO, J., "El cupo y el criterio de la autonomía económica y financiera a la luz de la Sentencia del Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas de 11 de septiembre de 2008", AVD/ZEA, Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia, JADO Aldizkaria. Bilbo. VII. urtea. 17 zk. 2009ko iraila, 85-116 orr. Baita ere, MARTÍNEZ BÁRBARA, G., "Las conclusiones de los Abogados Generales del Tribunal de Justicia europeo en asuntos relativos a la selectividad territorial de las medidas fiscales regionales: del Abogado General Saggio en la cuestión prejudicial sobre el País Vasco (1999) al Abogado General Jääskinen en el asunto Gibraltar (2011)", Forum Fiscal de Bizkaia, 2012.


batez ere, lekua bateak itxi diren enpresak bestean zabaldu direnak direla ziurtatu. Leku aldatzea benetan Euskal Autonomi Erkidegora izan dela argia izan behar du. Eta, aldatzearen arrazoiak ere tributuekiko erlazio zuzenekoak izan direla (presio fiskala: Sozietateen gaineko Zerga, baina baita ere udal zergak, etab.), soldaten kostua (soldatak, kotizazioak...), BEG (Barne Ekoizpen Gordina), solairuen kostua, komunikazio bideak, garraioak, gizarte kargak (lansariak, kotizazioak etab, Euskal Autonomi Erkidegotik kanpo zertxobait txikiagoak direnak), etab. Parametro hauek direla medio, ikerketa sakona beharko litzateke mugakideak diren Autonomia Erkidegoetatik Euskal Autonomi Erkidegora zenbat eta zein pisua duten enpresen aldatzea (zerga arrazoia dela medio) ikusteko eta, aldiz, kontutan hartu beharko dira ere Foru lurraldeetatik erregimen orokorreko espainiar lurraldera aldatzen direnak, beste arrazoi batzuk direla eta (kotizazio karga txikiagoak, solairu merkeagoak, presio politikoak...)

Doktrinaren zati batek ere (zenbait jarrera politikoek gain) zerga ezberdintasunak suposatzen duena ez da horrenbeste jada finkaturik dauden enpresak Euskal Autonomia Erkidegorantz lekuz aldatzearen arriskua baizik eta inbertsio berriei begira erakarpena erlatiboaren galtzea baizik<sup>22</sup>.

Lehen tributu foru sistemari mugakideak diren Autonomia Erkidegoek ateratako "etekina" aipatzean, zenbaiten Estatutuetan ustezko "muga efektu" hori jaso dutenaz ari ginen. Izan ere, 1999an Errioxak Estatutua aldatu zuenean, testuan klausula bezala sartu zuen<sup>23</sup>. Zenbait ñabar-

<sup>22</sup> CARRERA PONCEDA, A., *Impuesto de Sociedades y atracción de empresas. El caso vasco visto desde Cantabria, Universidad de Cantabria, Santander, 2005, 16. orr.*

<sup>23</sup> Errioxar lurraldearen diru sarrerak eta Estatuaren tributu orokorretan bere parte hartzea zehazterakoan beste faktore batzuen artean zera hartuko zela kontutan jaso zen: beste lurraldeekiko muga egoeratik ondorioztatu diren efektuen desoreken zuzenketa". Errioxako Estatutuko 46.1 art. ("A los efectos de concretar los ingresos de la Comunidad Autónoma de La Rioja, y de forma especial, la participación territorializada de La Rioja en los tributos generales que se determinen y las condiciones para la aprobación de recargos sobre tributos del sistema fiscal general, en el marco de lo dispuesto en el artículo 157.3 de la Constitución y en la legislación que lo desarrolle, la Administración General



dura eta aldaketa txikiekin, gauza bera egin zuten Gaztela-Lehoi eta Kantabrian beraien Estatutuetan.

Azken finean, oraindik estatúan konpondu gabe dagoen eredia da gakoa. Tributu foru sistema estatuko legediarekin eta europar legediarekin bat datorren araudia da, beraz definizioz ez luke zertan epai-babesa jaso dezaketen kalterik sortu behar. Aldiz, praktikan gertatzen ari dena da mugakideak diren Autonomia Erkidegoak Kontzertu ekonomikoaren kontra "blindatu" egin direla, eta horretan darraia.

### III.2. Europar Batasuneko batzordearen ikuspuntua.


Aipatzekoa da guzti honetan Europar batzordearen jarrera. Jakina denez, bere eskumenen ar-

*del Estado y la Comunidad Autónoma de La Rioja suscribirán un acuerdo bilateral que se formalizará en Comisión Mixta, que podrá ser revisado periódicamente de forma conjunta, el cual deberá tener en cuenta el esfuerzo fiscal de La Rioja y que atenderá singularmente los criterios de corresponsabilidad fiscal y solidaridad interterritorial, así como la corrección de los desequilibrios producidos en La Rioja por los efectos derivados de su situación limítrofe con otros territorios". LO 3/1982, de 9 de junio, de Estatuto de Autonomía de La Rioja (BOE nº 146, de 19 de junio de 1982 y BOR nº 1 de 10 de julio de 1982), Redactado conforme a la LO 2/1999, de 7 de enero, BOE nº 7 de 8 de enero de 1999 y BOR nº 4 de 9 de enero de 1999).*

tean europar legetasuna babestea dago, eta bere horretan ulertu izan du estatu-azpiko antolakuntzen arauak kontu handiz begiratu behar direla. Izan ere, nahiko lan badauka Batzordeak 27 Estatuetako araugintza aztertuz, estatu-azpikoez arduratzen hasteko, itzelezko lana litzateke... eta horrela ulergarria da ugaltze horren aurka adierazitako jarrera.

"Opor fiskalen" kasuan, azken finean "errespetu" kasu baten aurrean gaudela esan genezake. Batzordeak onartzen ez duena da bere gainetik salto egin eta Lurralde Historikoen galdetu/kontsultatu gabe europar legetasunarekin zerikusia duten erabakiak beraien kabuz hartzea. Azken finean, formazko arazoa da, ez horrenbeste edukiarri begira. Horregatik tematu da "opor fiskalen" gaierekin, eta azken ondorioetaraino heldu ere.

Honetan, gakoa, eskumena duten instituzioen ordezkartza da; egun, Estatuak bakarrik daukate hitza Europar Batasuneko instituzio erabakitzailetan (espainiar delegazioetan Autonomien nolabaiteko presentzia onartzen hasia den arren). Euskal instituzioak berezkoa duten Tributu arloko erabakietan parte hartzea eskatzen dute, beraien interesak babesteko (Estatukoekin bat ez datozen kasuak gerta daitezkeelako, adibidez). Baina hori beste gai bat da... (hala ez).



#### IV.LABURBILDUZ, EGUNGO EGOERA: "BLINDAJEAREN" TRIKIMAILUA

Asko idatzi izan da, bai komunikazio medioetan, bai doktrina artean, delako "blindajeaz". Lehenik eta behin, argi izan behar dugu "blindaje" izenaz ezagutzen dena ez dela halakorik. Berezko izena, otsailaren 19ko 1/2010 Lege Organikoak, Konstituzio Auzitegiari buruzko eta Botere Judizialaren lege organikoak aldatzeari buruzkoa, ez du izen hori inondik ere jasotzen. Izatez, Tributu Foru Arauen babes jurisdikzionala jasotzen du, trikimailu juridiko bat erabiliz arau hauen helegitea Konstituzio Auzitegiaren ezagutzapean sartuz (eta, beraz, orain arteko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikziotik ateraz). Horrek Tributu Foru Arauak aurkatzeko legitimazioa mugatu egiten du, aurretik esan bezala EKko 162.artikulukoetara (instituzioak) eta ez lehengo "interes legitimoa" duen edonor (AAJL 19.art).

Praktikan, helegite jartzea ez da saihestu, orain arteko aurkari izan diren Errioxako, Kantabriako eta Gaztela-Lehoiko instituzioek legitimazioa izaten jarraitzen dute eta. Ez horrela UGT-Errioxa eta Errioxako enpresarien Elkarteak, havek bai legitimazioa galdu dute eta. Baina helegiteak jarraitu dute, beraz "blindatze" ideia gezurtia da (argumentu bezala erabiltzen duten arren<sup>24</sup>). Lege organiko honek Tributu Foru arauak berrikusteko araubidea

aldatzen du, auzitegiaren babesaren defizita gainditu nahian. Esan bezala, Foru Arauen edukia tributuen arloan konstituzio aginpidez lege erre-berbapean badago, baina arau horiek berrikusteko araubidea Administrazioarekiko auziena zen. Eduki bereko gainerako legeak, ostera, Konstituzio Auzitegiaren aurrean soilik berrikus zitezkeen. 1/2010ko LOak Jurisdikzioa aldatzen die tributu foru arauari, baina ez izaera juridikoa. Erregelamenduak izaten jarraitzen dute, baina materia kontutan hartuz, beraien aurkako helegiteak Konstituzio Auzitegian kokatzen dira, horrek dakarren legitimazioa ("interes legitimoa" baino hertsia) eta prozedura aldetik aldatetekin. Baina helegiteak jartzea ez da saihestu, beraz "blindajea" deitzea pixka bat ausarta da...

Europar Batasunari dagokionez, guztiz ezinezkoa da inondik inolako blindajerik. Batasun-kideak diren Estatuetak maila guztietako arauak Europar legetasunaren menpe daude, nahita ez

<sup>24</sup> Aipatzearen bakarrik, ikus Pascual Medrano, A. (2010), "La Comunidad Autónoma de la Rioja y el llamado "blindaje" del concierto económico vasco", *Revista general de derecho constitucional*, 9. Zkia, 15-. ; (2012), "La Rioja: un nuevo capítulo en el largo conflicto fiscal ligado al "efecto frontera"", *Iustel, Revista General de Derecho Constitucional (RGDC)* 14.zkia, 1-27. Google, "efecto frontera" sarterik besterik ez dago berdineriaz jabetzeko.

errespetatu behar dute datozen instituziotik datozelarik ere. Eta gauza bera esan daiteke, nola ez, Estatu-azpiko antolakuntzaz, ez daukate europar legetasun ikuskaritzatik alde egiterik. Beraz, Europa mailan blindajea guztiz ezinezkoa da.

## V. BIBLIOGRAFIA

Kontzertu Ekonomiakoari buruzko informazio gehiagorako, ikus <http://www.adconcordiam.org>

ALONSO ARCE, I. (1998), "Naturaleza de las Normas Forales de los Territorios Históricos del País Vasco y su posición en el ordenamiento jurídico", Forum Fiscal de Bizkaia, iraileko zkia, 3-10 orr.

ALONSO OLEA, E.J. (2002) "Las haciendas forales vascas. 1500-2002. Una historia del concierto económico", in AAVV., "El Concierto Económico Vasco historia y renovación. Las valoraciones de la población de la C.A.P.V. al respecto", Cuadernos Sociológicos Vascos, 12 zkia., 7- 49 orr.

ALONSO OLEA, E.J. (1995), El Concierto Económico (1878-1937). Origen y formación de un Derecho Histórico, IVAP, Oñati.

CARRERA PONCELA, A., "Efecto diferencial del Impuesto foral sobre Sociedades: algunos cálculos desde Cantabria", Revista Asturiana de Economía (RAE), nº 31, 2004, 95-118 orr.

CARRERA PONCEDA, A., Impuesto de Sociedades y atracción de empresas. El caso vasco visto desde Cantabria, Universidad de Cantabria, Santander.

CORCUERA ATIENZA, J. (2003), "Consecuencias y límites de la constitucionalización de los Derechos Históricos de los Territorios Forales", REDC, 23.urtea, 69.Zkia, iraila-abendua.

DE LA HUCHA CELADOR, F. (2006), "La naturaleza legislativa de las normas forales de los territorios históricos del País Vasco", Civitas. Revista Española de Derecho Financiero, 129 zkia, 21-40 orr.

ELA-STV, Informe sobre fiscalidad en Hego Euskal Herria 2003: aumenta la injusticia, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbao, 2004.

ELA-STV, La cara oculta del Concierto y Convenio Económico: regresividad, desigualdad, fraude: año fiscal 2000, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbao, 2001.

ELA-STV, Más presión fiscal para las rentas de trabajo y menos para las empresariales y de capital: el Concierto Económico parte del Estatuto muerto: informe año fiscal 2001, Manu Robles-Arangiz Institutua, Bilbao, 2002.

FERNÁNDEZ RODRÍGUEZ, T.R., (1988), «Concepto de Foralidad en la Constitución de 1987», Los Derechos Históricos Vascos-en, IVAP, Oñati.

FERNÁNDEZ RODRÍGUEZ, T.R. (1985), Los Derechos Históricos de los territorios forales. Bases constitucionales y estatutarias de la Administración Foral Vasca, Centro de Estudios Constitucionales, Civitas, Madrid.

GARCÍA RUÍZ, J.L. eta GIRÓN REGUERA, E. (1997), "La incidencia del modelo de Estado en el sistema de financiación autonómica", Revista Española de Derecho Constitucional, 17. urtea, 51. zkia, iraila-abendua, 141-158 orr.

HERRERO Y RODRÍGUEZ DE MIÑÓN, M., (1998a), Derechos Históricos y Constitución, Taurus, Madrid.

HERRERO Y RODRÍGUEZ DE MIÑÓN, M., (1998b), "Los Derechos Forales como Derechos Históricos", REDC, 18. urtea, 52.Zkia, Urtarrila-apirila, 53-80 orr.

MARTÍNEZ BÁRBARA, G., "Las conclusiones de los Abogados Generales del Tribunal de Justicia europeo en asuntos relativos a la selectividad territorial de las medidas fiscales regionales: del Abogado General Saggio en la cuestión prejudicial sobre el País Vasco (1999) al Abogado General Jääskinen en el asunto Gibraltar (2011)", Forum Fiscal de Bizkaia, 2012.

PASCUAL MEDRANO, M.A., (2010) "La Comunidad Autónoma de la Rioja y el llamado "blindaje" del concierto económico vasco", Revista general de derecho constitucional, nº 9.

PASCUAL MEDRANO, M.A. (2012), "La Rioja: un nuevo capítulo en el largo conflicto fiscal ligado al "efecto frontera"", *Iustel, Revista General de Derecho Constitucional (RGDC)* 14.zkia, 1-27.

RUBÍ CASSINELLO, J., (2009) "El cupo y el criterio de la autonomía económica y financiera a la luz de la Sentencia del Tribunal de Justicia de las Comunidades Europeas de 11 de septiembre de 2008", *AVD/ZEA, Academia Vasca de Derecho/Zuzenbidearen Euskal Akademia, JADO Aldizkaria*. Bilbo. VII. urtea. 17 zk. 2009ko iraila, 85-116 or.

SERRANO-GAZTELUURRUTIA, S., (2012), *El Concierto Económico Vasco ante el Juez Comunitario: La judicialización de las Normas Forales tributarias en el ámbito jurídico europeo. Situación vigente (ayudas de Estado) y perspectivas de futuro*, José M<sup>a</sup> Leizaola 2011 Saria, IVAP, Oñati.